Egiaztatzeko helbidea Dirección de comprobación
https://e-s.araba.eus/wps/portal/ConsultaCove

Egiaztapen kodea Código de verificación
xR8x-Ght6-S6en-P2Wi

# 1. 2025eko Aurrekontua Gauzatzeko Foru Arau

# 1. Norma Foral de Ejecución Presupuestaria para 2025

## 2025EKO AURREKONTUA GAUZATZEKO FORU ARAUAREN PROIEKTUA
## PROYECTO DE NORMA FORAL DE EJECUCION PRESUPUESTARIA PARA EL 2025

### ZIOEN AZALPENA

Aurrekontu hauek Arabako Lurralde Historikoko Ekonomia eta Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arauan xedatutakoa betez onesten dira, Ekonomia Itunaren 48. eta 62.b) artikuluetan xedatutakoaren babesean, Arabako Foru Aldundiak 2025erako onetsitako aurrekontu egonkortasuneko eta zor publikoko helburuen arabera, bai eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritako arau agindua betez ere.

Aurrekontuak gauzatzeko foru arau honen I. tituluan jasotzen da haren funtsezko edukia: Arabako Lurralde Historikoaren sektore publikoko diru sarreren eta gastuen egoerak onestea eta haren zergei eragiten dieten eta zerga gastuen zenbatekoa kontsignatzea.

II. tituluak Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoaren zorpetzearen eta bermeak ematearen mugak ezartzen ditu, bai eta finantza eragiketen kudeaketari buruzko arauak ere

III. tituluan, besteak beste, aurrekontu kredituen eta horien aldaketen arauketa orokorraren berezitasunak arautzen dira.

IV. tituluak aurrekontuen kudeaketaren eta kontrolaren inguruko arauak; diruzaintzako aurrerakinak, gastua erreserbatzeko, baimentzeko, prestatzeko eta xedatzeko eskumena duten organoen kontrol ekonomikoa jasotzen ditu.

V. titulua langileak kudeatzeko araubideari buruzkoa da eta bi kapitulutan banatuta dago. I. kapitulua Foru administrazioko sektore publikoari buruzkoa da eta II. Kapitulua Foru sektore publikoko beste erakunde batzuei buruzkoa. Biek arautzen dute aurrekontu plantillaren eraketa eta funtzionarioen, lan kontratudun langileen, aldi baterako langileen eta goi karguen ordainsariak baita ere, dagokionaren arabera. Gainera, foru sektore publikoko langile gastuen fiskalizazioa arautzen du eta kanpo langileen lana eskatzen duten kontratu eta hitzarmenetan jarduteko jarraibideak ezartzen ditu.

VI. tituluak toki erakundeen finantzaketa arautzen ditu.

- Aurrekontua Gauzatzeko Foru Araua bederatzi

### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Los presentes Presupuestos se aprueban en cumplimiento de lo dispuesto en la Norma Foral 3/2023, de 25 de enero, General Presupuestaria, al amparo de lo dispuesto en los artículos 48 y 62.b) del Concierto Económico, conforme a los objetivos de estabilidad presupuestaria y deuda pública de la Diputación Foral de Álava aprobados para el ejercicio 2025, así como dando cumplimiento al mandato normativo contenido en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.

Se recoge en el Título I de la presente Norma Foral de Ejecución Presupuestaria su contenido esencial, constituido por la aprobación de los estados de ingresos y gastos del sector público foral del Territorio Histórico de Álava y la consignación del importe de los gastos fiscales que afectan a sus tributos.

El Título II establece el límite de endeudamiento y de prestación de garantías del sector público foral del Territorio Histórico de Álava, así como normas relativas a la gestión de otras operaciones financieras.

En el Título III se regulan, entre otros aspectos, las especialidades del régimen general de los créditos presupuestarios y de sus modificaciones.

El Título IV recoge normas relativas a la gestión y control presupuestario; anticipos de tesorería, el control económico, órganos competentes para la reserva, autorización, disposición y ordenación del gasto.

El Título V, sobre el régimen de la gestión de personal, se divide en dos capítulos. El Capítulo I relativo al Sector Público Foral Administrativo y el Capítulo II, relativo a otras entidades del Sector Público Foral. Ambos regulan la composición de la plantilla presupuestaria, las retribuciones íntegras de su personal funcionario, laboral, eventual y altos cargos, según corresponda. También incide en la fiscalización de los gastos de personal del sector público foral y señala pautas de actuación en materia de contratos o convenios que impliquen trabajo de personal externo.

El Título VI regula la financiación de las entidades locales.

- El contenido de la Norma Foral de Ejecución

xedapen gehigarriren, xedapen indargabetzaile baten eta azken xedapen baten bidez osatzen da; horietan, askotariko aginduak jasotzen dira:

- Lehenengo xedapen gehigarriak Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 32.6 artikuluan ezarritako muga ekonomikoak ezartzen ditu.
- Bigarrenak, langile gastuei buruzkoak, ahalmena eta baimena ematen die Arabako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluari eta, hala badagokio, Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko gainerako organo eskudunei kasuan kasuko ordainsari igoera ezartzeko eta xedatzeko.
- Hirugarrenak Arabako Foru Ogasunaren tasen igoera ezartzen du 2025eko ekitaldirako.
- Laugarrenak kendu egiten du Arabako Lurralde Historikoko arrantza esparruetan karramarroak arrantzatzeko baimenak emateagatiko tasa.
- Bosgarrenak Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuen otsailaren 9ko 3/2004 Foru Araua aldatzen du.
- Seigarrenak Arabako toki erakundeek hitzartu beharreko epe luzeko kreditu eragiketak arautzen ditu.
- Zazpigarrenak aldatzen du Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duen apirilaren 12ko 9/2017 Foru Araua.
- Zortzigarrenak aldatzen du Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorra.
- Bederatzigarrenak AP-1 autobidea erabiltzeagatiko bidesarien zenbatekoak ezartzen ditu 2025erako.

Jarraian, aurrekontua betearazteko foru arauetan egon ohi den xedapen indargabetzailea ezartzen da.

Horren ondoren, foru araua indarrean jartzeari buruzko azken xedapenetatik lehenengoarekin osatzen da foru araua.

Presupuestaria se completa con nueve disposiciones adicionales, una disposición derogatoria y una disposición final, en las que se recogen preceptos de índole muy variada:

- La Disposición Adicional Primera establece los umbrales económicos a los que hacen referencia el artículo 32.6 de la Norma Foral 11/2016, de 19 de octubre, de Subvenciones del Territorio Histórico de Álava.
- La Segunda, referida a los gastos de personal, habilita y autoriza al Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Álava, y al resto de órganos competentes del sector público foral del Territorio Histórico de Álava, en su caso, a establecer y disponer del incremento de retribuciones correspondiente.
- La Tercera establece el incremento de las Tasas de la Hacienda Foral de Álava para el ejercicio 2025.
- La Cuarta suprime de la Tasa por la concesión de permisos de pesca de cangrejos en cotos del Territorio Histórico de Álava.
- La Quinta modifica la Norma Foral 3/2004, de 9 de febrero, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Álava.
- La Sexta regula las operaciones de crédito a largo plazo a concertar por las entidades locales de Álava.
- La Séptima modifica la Norma Foral 9/2017, de 12 de abril, reguladora del Plan Foral de Obras y Servicios de la Diputación Foral de Álava.
- La Octava modifica la Norma Foral 3/2023, de 25 de enero, General Presupuestaria.
- La Novena establece los importes de los peajes por utilización de la autopista AP-1 en 2025.

A continuación se establece la Disposición Derogatoria habitual en las Normas Forales de Ejecución Presupuestaria.

Tras ello, la Norma se completa con la Disposición Final Primera, relativa a la entrada en vigor de la presente Norma Foral.

## I. TITULUA. AURREKONTUEN ONESPENA ETA EDUKIA

### 1. artikulua. Onespena

Onespena ematen zaie Arabako Lurralde Historikoko 2025eko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrei. Aurrekontu horiek Arabako Foru Aldundiaren, foru erakunde autonomoen, merkataritzako foru sozietateen, foru fundazioen, enpresa erakunde publikoen eta Arabako Lurralde Historikoko administrazio, enpresa eta fundazioen foru sektore publikoko foru partzuergoen aurrekontuek osatzen dituzte.

### 2. artikulua. Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko erakundeen aurrekontu orokorrak.

1. Hauexek dira **Arabako Foru Aldundia**ren 2025eko ekitaldirako aurrekontuaren osagaiak:

a) Gastuen egoera orriari dagokionez, ordainketa kredituak 3.351.179.110 eurokoak dira eta konpromiso kredituak, aldiz, 106.717.221 eurokoak.

b) Sarreren orria: 3.351.179.110 euro guztira, zeinetan 80.948.936 euroko zorpetze eragiketak jasotzen baitira.

2. Foru erakunde autonomoen 2025eko ekitaldiko aurrekontuak osagai hauek dauzka:

2.1. **Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea**ren aurrekontua. Ondorengoek osatzen dute:

a) Gastuen egoera orria: 267.517.548 euro guztira.

b) Sarreren egoera orria: 267.517.548 euro guztira. Finantzaketarako barne transferentziak ere atal honetan sartzen dira: 218.807.250 euro guztira.

2.2. **Gazteriaren Foru Erakundea**ren aurrekontuak honako osagaiak ditu:

a) Gastuen egoera orria: 7.404.983 euro guztira.

b) Diru sarreren egoera orria: 7.404.983 euro guztira. Finantzaketarako barne transferentziak ere atal honetan sartzen dira: 5.552.763 euro guztira.

2.3. **Arabako Foru Suhiltzaileak erakundea**ren aurrekontuak osagai hauek dauzka:

a) Gastuen egoera orria; ordainketa kredituak 17.262.703 euro eta konpromiso kredituak 50.000 euro.

## TÍTULO I. APROBACIÓN Y CONTENIDO DE LOS PRESUPUESTOS

### Artículo 1. Aprobación

Se aprueban los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Álava para el ejercicio 2025, integrados por los Presupuestos de la Diputación Foral de Álava, de los organismos autónomos forales, de las sociedades mercantiles forales, de las fundaciones forales, entidades públicas empresariales y consorcios forales del sector público foral administrativo, empresarial y fundacional del Territorio Histórico de Álava.

### Artículo 2. Presupuestos Generales de las entidades del sector público foral del Territorio Histórico de Álava.

1. El Presupuesto de la **Diputación Foral de Álava** para el ejercicio 2025 está integrado por:

a) El Estado de Gastos que asciende en cuanto a los créditos de pago a la cantidad de 3.351.179.110 euros, y en cuanto a los créditos de compromiso a la cantidad de 106.717.221 euros.

b) El Estado de Ingresos, integrado por una cuantía de 3.351.179.110 euros, figurando en el mismo operaciones de endeudamiento por importe de 80.948.936 euros.

2. El Presupuesto de los organismos autónomos forales para el ejercicio 2025 estará constituido por:

2.1. El Presupuesto del **Instituto Foral de Bienestar Social**, integrado por:

a) El Estado de Gastos, cuyo importe asciende a la cantidad de 267.517.548 euros.

b) El Estado de Ingresos, por una cuantía de 267.517.548 euros, incluyendo transferencias internas para su financiación por un importe de 218.807.250 euros.

2.2. El Presupuesto del **Instituto Foral de la Juventud**, integrado por:

a) El Estado de Gastos, cuyo importe asciende a la cantidad de 7.404.983 euros.

b) El Estado de Ingresos, por una cuantía de 7.404.983 euros, incluyendo transferencias internas para su financiación por importe de 5.552.763 euros.

2.3. El Presupuesto de **Arabako Foru Suhiltzaileak - Bomberos Forales de Álava**, integrado por:

a) El Estado de Gastos, cuyo importe asciende a la cantidad de 17.262.703 euros, y en cuanto a los créditos de compromiso a la

b) Diru sarreren egoera orria: 17.262.703 euro guztira. Finantzaketarako barne transferentziak ere atal honetan sartzen dira: 17.185.783 euro guztira.

3. Merkataritzako foru sozietateen 2025eko ekitaldiko aurrekontuk osagai hauek dauzka:

3.1. **Araba Garapen Agentzia SA** ren aurrekontua. Atal hauek dauzka:

a) Ustiapen aurrekontua: 7.580.348,64 euroko zenbatekoa guztira.

b) Kapital aurrekontua: 1.423.211,38 euro guztira.

3.2. **Arabako Kalkulu Gunea SA** ren aurrekontua. Atal hauek dauzka:

a) Ustiapen aurrekontua: 27.840.970,71 euro guztira.

b) Kapital aurrekontua: 0,00 euro guztira.

3.3. **Naturgolf SA** ren aurrekontua. Ondorengoek osatzen dute:

a) Ustiapen aurrekontua: 1.016.907 euroko zenbatekoa guztira.

b) Kapital aurrekontua: 0 euro guztira.

3.4. **ARABAT Arabako Bideak SA** ren aurrekontua. Ondorengoek osatzen dute:

a) Ustiapen aurrekontua: 13.604.238,03 euroko zenbatekoa guztira.

b) Kapital aurrekontua: 9.510.896,09 euroko zenbatekoa guztira.

3.5. **Indesa 2010 SL** ren aurrekontua. Ondorengo hauek osatzen dute:

a) Ustiapen aurrekontua: 26.447.940,22 euroko zenbatekoa guztira.

b) Kapital aurrekontua: 1.018.864,00 euroko zenbatekoa guztira.

3.6. **Enargi Araba SA** ren aurrekontua. Ondorengo hauek osatzen dute:

a) Ustiapen aurrekontua: 10.664,55 euroko zenbatekoa guztira.

b) Kapital aurrekontua: 570.000 euroko zenbatekoa guztira.

4. Foru fundazioen 2025eko ekitaldiko aurrekontuak osagai hauek dauzka:

cantidad de 50.000 euros.

b) El Estado de Ingresos, por una cuantía de 17.262.703 euros, incluyendo transferencias internas para su financiación por importe de 17.185.783 euros.

3. El Presupuesto de las sociedades mercantiles forales para el ejercicio 2025 estará constituido por:

3.1. El Presupuesto de **Álava Agencia de Desarrollo, S.A.**, integrado por:

a) Por el Presupuesto de Explotación, cuyo importe asciende a 7.580.348,64 euros.

b) Por el Presupuesto de Capital, cuyo importe asciende a 1.423.211,38 euros.

3.2. El Presupuesto del **Centro de Cálculo de Álava, S.A.**, integrado por:

a) Por el Presupuesto de Explotación, cuyo importe asciende a 27.840.970,71 euros.

b) Por el Presupuesto de Capital, cuyo importe asciende a 0,00 euros.

3.3. El Presupuesto de **Naturgolf, S.A.**, integrado por:

a) Por el Presupuesto de Explotación, cuyo importe asciende a 1.016.907 euros.

b) Por el Presupuesto de Capital, cuyo importe asciende a 0 euros.

3.4. El Presupuesto de **ARABAT, Arabako Bideak-Vías de Álava, S.A.** integrado por:

a) Por el Presupuesto de Explotación, cuyo importe asciende a 13.604.238,03 euros.

b) Por el Presupuesto de Capital, cuyo importe asciende a 9.510.896,09 euros.

3.5. El Presupuesto de **Indesa 2010, S.L.** integrado por:

a) Por el Presupuesto de Explotación, cuyo importe asciende a 26.447.940,22 euros.

b) por el Presupuesto de Capital, cuyo importe asciende a 1.018.864,00 euros.

3.6 El Presupuesto de **Enargi Araba, S.A.** integrado por:

a) Por el Presupuesto de Explotación, cuyo importe asciende a 10.664,55 euros.

b) por el Presupuesto de Capital, cuyo importe asciende a 570.000 euros.

4. El Presupuesto de las fundaciones forales para el ejercicio 2025 estará integrado por:

4.1. **Artium Fundazioa**ren aurrekontua. Atal hauek dauzka:

a) Ustiapen aurrekontua: 6.343.545,52 euroko zenbatekoa guztira.

b) Kapital aurrekontua: 308.000 euro guztira.

4.2. **Kirolaraba Fundazioa**ren aurrekontua; atal hauek dauzka:

a) Ustiapen aurrekontua: 527.500 euroko zenbatekoa guztira.

b) Kapital aurrekontua: 0,00 euro.

4.3. **Santa Maria Katedrala Fundazioa**ren aurrekontua; atal hauek dauzka:

a) Ustiapen aurrekontua: 2.516.457.56 euroko zenbatekoa guztira.

c) Kapital aurrekontua: 1.698.908,66 euro guztira.

4.4. **Gatz Harana Fundazioa**ren aurrekontua; atal hauek dauzka:

a) Ustiapen aurrekontua: 2.388.050 euroko zenbatekoa guztira.

b) Kapital aurrekontua: 427 .000 euro guztira.

4.5 **Álava Mobility Lab Fundazioa**ren aurrekontua; atal hauek dauzka:

a) Ustiapen aurrekontua: 1.348.912 euroko zenbatekoa guztira.

b) Kapital aurrekontua: 1.287.380 euroko zenbatekoa guztira.

5. Arabako Lurralde Historikoko zergetan eragina duten zerga gastuak eurotan balioetsi dira 2025eko ekitaldirako 1.129.476.000.

**3. artikulua. Indarraldia**

Aurrekontu Orokorren indarraldia Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorraren 42. artikuluan xedatutakoa izango da.

4.1. El Presupuesto de la **Fundación Artium**, integrado:

a) Por el Presupuesto de Explotación, cuyo importe asciende a 6.343.545,52 euros.

b) Por el Presupuesto de Capital, cuyo importe asciende a 308.000 euros.

4.2. El presupuesto de la **Fundación Kirolaraba Fundazioa**, integrado:

a) Por el Presupuesto de Explotación, cuyo importe asciende a 527.500 euros.

b) Por el Presupuesto de Capital, cuyo importe asciende a 0,00 euros.

4.3. El Presupuesto de la **Fundación Catedral Santa María**, integrado:

a) Por el Presupuesto de Explotación, cuyo importe asciende a 2.516.457.56 euros.

c) Por el Presupuesto de Capital, cuyo importe asciende a 1.698.908,66 euros.

4.4. El Presupuesto de la **Fundación Valle Salado**, integrado:

a) Por el Presupuesto de Explotación, cuyo importe asciende a 2.388.050 euros.

b) Por el Presupuesto de Capital, cuyo importe asciende a 427.000 euros.

4.5. El Presupuesto de la **Fundación Álava Mobility Lab**, integrado:

a) Por el Presupuesto de Explotación, cuyo importe asciende a 1.348.912 euros.

b) Por el Presupuesto de Capital, cuyo importe asciende a 1.287.380 euros.

5. En el ejercicio 2025 los gastos fiscales que afectan a los tributos del Territorio Histórico de Álava se estiman en 1.129.476.000 euros.

**Artículo 3. Vigencia**

La vigencia de los Presupuestos Generales será la dispuesta en el artículo 42 de la Norma Foral 3/2023, de 25 de enero, General Presupuestaria.

**II. TITULUA. FINANTZA ERAGIKETAK**

**4. artikulua. Zorpetzeko baimena**

1. Baimena ematen zaio Arabako Foru Aldundiari epe luzeko zorpetzea dakarten eragiketak egiteko, ekitaldi horretako aurrekontu beharrei aurre egiteko, baldin eta 2025eko abenduaren 31n foru zor bizia 530.568.576,94 eurotik gorakoa ez bada.

2. Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio Arabako Lurralde Historikoan etxebizitza erosteko eta/edo alokatzeko abalen programa baten esparruan bermea emateko, 1.000.000 euroko gehieneko saldo biziarekin.

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailari egokituko zaio abalak baimendu eta formalizatzea, bai eta horien baldintzak zehaztea ere.

3. Aldundiko merkataritza sozietateentzat eta foru fundazioentzat ez da baimentzen epe luzerako zorpetzea, salbu eta ARABAT, Arabako Bideak - Vías de Álava SA aldundiko merkataritza sozietateari, 30.000.000 euroko zorpetze eragiketak ituntzeko baimena ematen baitzaio; eta Arabako Foru Aldundiari, eragiketa horiek bermatzeko baimena.

**5. artikulua. Beste finantza eragiketa batzuen araubidea**

Aurrekontua finantzatzera bideratuta ez dauden finantza eragiketak ondare kontabilitatean soilik erregistratuko dira; nolanahi ere, lortzen diren etekin garbiak edo egiten diren gastuak aurrekontuari aplikatu ahal izango zaizkio.

**TITULO II. OPERACIONES FINANCIERAS**

**Artículo 4. Autorización de endeudamiento**

1. Se autoriza a la Diputación Foral de Álava a realizar operaciones que supongan endeudamiento a largo plazo siempre y cuando la Deuda Foral Viva a 31 de diciembre de 2025 no exceda de 530.568.576,94 euros, con la finalidad de cubrir necesidades presupuestarias durante el citado ejercicio.

2. Se autoriza a la Diputación Foral de Álava a prestar garantía en el marco de un programa de avales a la compra y/o alquiler de vivienda en el Territorio Histórico de Álava, con un saldo máximo vivo de 1.000.000 euros.

Corresponderá al Departamento de Equilibrio Territorial y Ordenación del Territorio autorizar y formalizar los avales, así como determinar sus condiciones.

3. Para las sociedades mercantiles forales y las fundaciones forales no se permite el endeudamiento a largo plazo, salvo a la sociedad mercantil foral ARABAT, Arabako Bideak-Vías de Álava, S.A. a quien se autoriza a concertar operaciones de endeudamiento por importe de 30.000.000 euros, y a la Diputación Foral de Álava a garantizar dichas operaciones.

**Artículo 5. Régimen de otras operaciones financieras**

Las operaciones financieras no destinadas a financiar el Presupuesto serán objeto de registro exclusivamente en contabilidad patrimonial, sin perjuicio de la aplicación al Presupuesto de los rendimientos netos que se obtengan o gastos en que se incurran.

**III. TITULUA. AURREKONTU KREDITUEN ERREGIMENA ETA ALDAKETAK**

**6. artikulua. Kredituen izaera**

1. Arabako Lurralde Historikoko administrazioen foru sektore publikoko erakundeen aurrekontuko gastuen egoera orrietan sartutako ordainketa kredituek muga jakina dute.

Lotura mailak eta arauak Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorraren 55. artikuluan ezarritakoak izango dira. Hala ere:

a) Programa mailan lotesleak dira Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuko "933200 Ondarearen kudeaketa" programari dagozkion gastuak.

b) Inbertsioen Erakunde arteko Planari dagozkion aurrekontu kredituek izaera loteslea izango dute onartzen diren desagregazio mailarekin.

2. Arabako Lurralde Historikoko enpresa eta fundazioen foru sektore publikoko erakundeen aurrekontuetako gastuen egoera orrietan sartutako ordainketa kredituak muga jakinik gabekoak izango dira, Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorraren 56. artikuluan aurreikusitako salbuespenekin eta baldintzetan.

Muga jakinik ez izatearen baldintza hori aplikatuko zaie, halaber, Kirolaraba Fundazioak aurrekontuan onartutakoak baino handiagoak diren diru sarrerekin finantzatutako transferentzia eta dirulaguntza arruntetarako eta kapitalekoen ordainketa kredituei.

3. Kredituen lotura maila edozein dela ere, gastuaren kontabilizazioa eta kredituen aldaketak kasuan kasuko aurrekontu azpikontzeptu edo partidei aplikatuko zaizkie betiere.

**7. artikulua. Kreditu transferentzien araubidea**

1. Kreditu transferentzien araubidea Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorraren II. tituluko III. kapituluaren 2. ataleko 61-64. artikuluetan xedatutakoaren mende egongo da.

2. 62. artikuluaren 4. apartatuan xedatutakoa gorabehera, Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuko 933200 "Ondarearen kudeaketa" programari esleitutako I. kapituluko ordainketa kredituak artikulu horren gainerako apartatuetan araututakoaren arabera transferitu ahal izango dira.

**8. artikulua. Kreditu transferentziak baimentzeko eskumena duten organoak**

**TITULO III. RÉGIMEN DE CRÉDITOS PRESUPUESTARIOS Y SUS MODIFICACIONES**

**Artículo 6. Carácter de los créditos**

1. Los Créditos de pago incluidos en los estados de gastos del presupuesto de las entidades del sector público foral administrativo del Territorio Histórico de Álava tienen carácter limitativo.

Los niveles y reglas de vinculación serán los establecidos en el artículo 55 de la Norma Foral 3/2023, de 25 de enero, General Presupuestaria. No obstante:

a) Vinculan a nivel de programa, los gastos relativos al programa 933200 «Gestión del Patrimonio» del presupuesto de la Diputación Foral de Álava.

b) Tendrán carácter vinculante con el nivel de desagregación con el que se aprueben, los créditos presupuestarios correspondientes al Plan Interinstitucional de Inversiones.

2. Los créditos de pago incluidos en los estados de gastos de los presupuestos de las entidades del sector público foral empresarial y fundacional del Territorio Histórico de Álava tendrán carácter estimativo, con la excepción y en los términos previstos en el artículo 56 de la Norma Foral 3/2023, de 25 de enero, General Presupuestaria.

No obstante, esta condición estimativa también será aplicable a los créditos de pago con destino a transferencias y subvenciones corrientes y de capital financiados con ingresos que perciba la Fundación Kirolaraba Fundazioa superiores a los aprobados en el Presupuesto.

3. Independientemente del grado de vinculación de los créditos, la contabilización del gasto y las modificaciones de créditos se aplicarán, en todo caso, a los subconceptos o partidas presupuestarias que correspondan.

**Artículo 7. Régimen de transferencias de crédito**

1. El régimen de transferencias de crédito estará sujeto a lo dispuesto en los artículos 61 a 64 den la Sección 2ª del Capítulo III del Título II de la Norma Foral 3/2023, de 25 de enero, General Presupuestaria.

2. No obstante lo dispuesto en el apartado 4 del artículo 62, los créditos de pago del Capítulo I consignados en el Programa 933200, «Gestión del Patrimonio» del presupuesto de la Diputación Foral de Álava, podrán ser transferidos de acuerdo con lo regulado en el resto de apartados de dicho artículo.

**Artículo 8. Órganos competentes para autorizar transferencias de créditos**

1. Kreditu transferentziak Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorraren 64. artikuluan jasotako organoak baimenduko ditu.

2. Ogasun , Finantza eta Aurrekontu Sailari dagokio sail desberdinetako gastu programa desberdinei eragiten dieten ordainketa kredituen transferentziak baimentzea, baldin eta 15.000 eurotik gorakoak ez badira.

3. Arabako Foru Aldundiko sail, foru erakunde autonomo edo foru partzuergo beraren gastu programa desberdinei eragiten dieten ordainketa kredituen transferentziak horien kudeaketaren ardura duen sailak baimenduko ditu, edo foru erakunde autonomoen edo foru partzuergoen kasuan, haiek atxikita dauden sailak, baldin eta 15.000 euro baino gutxiagokoak badira.

4. Foru Gobernu Kontseiluari dagokio gastu programa desberdinei eragiten dieten ordainketa kredituen transferentziak baimentzea, baldin eta 15.000 eurotik gorakoak badira.

**9. artikulua. Konpromiso kredituen aldaketak**

1. Foru Gobernu Kontseiluak konpromiso kredituen egoera orria handitu ahal izango du, kreditu berriak onartuz edo baimendutakoen zenbatekoa handituz; gehienez ere Arabako Lurralde Historikoko administrazioko foru sektore publikoko erakundeen aurrekontuetan onartutako konpromiso kredituen zenbateko osoaren % 10era arte.

2. Batzar Nagusiei dagokie konpromiso kredituen egoera handitzea, kreditu berriak onartuz edo baimendutakoen zenbatekoa handituz, 1. apartatuan jasotako muga gainditzen bada.

**10. artikulua. Kreditu aldaketen arloan jarraitu beharreko prozedura**

1. 7.2 artikuluan 933200 "Ondarearen kudeaketa" programari buruz ezarritakoa alde batera utzi gabe, kreditu orokorraren programa jatorri duten sailen transferentzia eskaerek, I. kapituluko kredituei eragiten ez badiete, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Eskaera egiten duen foru sailak honakoak frogatu beharko ditu: batetik, aurrekontuko zuzkidura handiagoa behar duela eta, bestetik, bere kredituen bidez ezin diola kasuan kasuko kopuruari aurre egin.

b) Horretarako, transferentzia eskaerarekin batera, kasuan kasuko gastu programaren beharren analisia ere aurkeztu beharko du, eta aurrekontua gauzatzeak ezarritako helburuekiko nolako desbideratzeak izan dituen azaldu. Horiez gain, sail horren kredituen burutzapen

1. Las transferencias de crédito se autorizarán por el órgano previsto en el artículo 64 de la Norma Foral 3/2023, de 25 de enero, General Presupuestaria.

2. Corresponderá al Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos autorizar las transferencias de crédito de pago que afecten a distintos programas de gasto de distintos departamentos cuya cuantía no exceda de 15.000 euros.

3. Corresponderá autorizar las transferencias de crédito de pago que afecten a distintos programas de gasto de un mismo departamento de la Diputación Foral de Álava, organismo autónomo foral o consorcio foral, al Departamento responsable de la gestión o al que se encuentren adscritos, en el caso de organismos autónomos forales o consorcios forales, cuando la cuantía no exceda de 15.000 euros

4. Corresponderá al Consejo de Gobierno Foral autorizar las transferencias de crédito de pago que afecten a distintos programas de gasto cuya cuantía exceda de 15.000 euros.

**Artículo 9. Modificaciones de crédito de compromiso**

1. El Consejo de Gobierno Foral podrá incrementar el estado de créditos de compromiso, aprobando nuevos créditos o aumentando el importe de los autorizados hasta un 10 % del importe global de los créditos de compromiso aprobados en los presupuestos de los entes del Sector público foral administrativo del Territorio Histórico de Álava.

2. Corresponderá a las Juntas Generales de Álava incrementar el estado de créditos de compromiso, aprobando nuevos créditos o aumentando el importe de los autorizados cuando se supere el límite previsto en el apartado 1.

**Artículo 10. Procedimiento en materia de modificación de créditos**

1. Sin perjuicio de lo establecido en el artículo 7.2. respecto Programa 933200 «Gestión del Patrimonio», las solicitudes de transferencia de los departamentos que tengan como origen el Programa del Crédito Global y que no afecten a los créditos del Capítulo I, deberán de ajustarse a los siguientes requisitos:

a) El departamento foral solicitante deberá justificar la mayor necesidad de dotación presupuestaria y, además, la imposibilidad de atender las insuficiencias con créditos del propio departamento.

b) A tal efecto, la solicitud de transferencia deberá ir acompañada de un análisis de las necesidades del correspondiente programa de gasto, indicando las desviaciones que la ejecución del presupuesto revele en la consecución de los correspondientes objetivos,

aurreikuspenei buruzko azterlana ere aurkeztuko du.

2. Xedapen libreko egoeran dauden ordainketa kredituak finantzatzea helburu duten aurrekontu aldaketak izapidetzeko, beharrezkoa izango da aldaketa horrekin izapidetuko den espedienteari buruzko dokumentazioa aurkeztea, aurretik dagoen xedapen libreko kredituaren xedeari buruzko dokumentazioarekin batera.

3. Gastu zentralizatuen kontzeptuei eragiten dieten kreditu transferentziak gastu zentralizatua kudeatzen duen organoaren onespena izapidetzearekin batera aurkeztu beharko dira.

**11. artikulua. Kreditu gaikuntzak**

1. Kreditu gaitzeak Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorraren 65. artikuluan xedatutakoaren arabera arautuko dira.

2. Edonola ere, Foru Gobernu Kontseiluak izango du gaitzeak egiteko eskumena, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak proposatuta.

Hala ere, 65. artikuluaren 2.2 apartatuan jasotako kasuan, Foru Gobernu Kontseiluak izango du gaitzeko eskumena, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak proposatuta, baldin eta zenbatekoa ez bada inbertsio errealen besterentzeei buruzko diru sarreren kapituluaren % 10 baino handiagoa; bestela, Arabako Batzar Nagusiek izango dute eskumena.

así como un estudio sobre la previsión del grado de realización de los créditos del departamento.

2. Para tramitar modificaciones presupuestarias que tengan por objeto financiar créditos de pago en situación de libre disposición, será necesario aportar la documentación relativa al expediente que será tramitado con dicha modificación, junto con la documentación del destino del crédito de libre disposición existente previamente.

3. Las transferencias de crédito que afectan a los conceptos de gastos de carácter centralizado deberán de ir acompañadas para su tramitación de la aprobación del órgano gestor del gasto centralizado.

**Artículo 11. Habilitaciones de Crédito**

1. Las Habilitaciones de crédito se regirán por lo dispuesto en el artículo 65 de la Norma Foral 3/2023, de 25 de enero, General Presupuestaria.

2. En cualquier caso, el Consejo de Gobierno Foral, a propuesta del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos será el competente para la realización de las habilitaciones.

No obstante, en el supuesto previsto en el apartado 2.2 del artículo 65, será competente para habilitar el Consejo de Gobierno Foral, a propuesta del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, siempre que la cuantía no exceda del 10 % del capítulo de ingresos relativo a enajenaciones de inversiones reales, y las Juntas Generales de Álava, en caso contrario.

**IV. TITULUA. AURREKONTUEN KUDEAKETA ETA KONTROLA**

**12. artikulua. Arabako Foru Aldundiaren gastua erreserbatzea, baimentzea, xedatzea eta prestatzea.**

1. Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorraren 75. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, Arabako Foru Aldundiaren eremuan, eragiketa arrunten eta kapital eragiketen gastuak hauek erreserbatu, baimendu, prestatu eta xedatuko dituzte:

a) Foru sail bakoitzeko titularrak, baldin eta eragiketa bakoitzeko zenbatekoa 200.000 eurotik gorakoa ez bada.

b) Foru Gobernu Kontseiluak, foru sail bakoitzeko titularrek proposatuta, baldin eta zenbatekoa 200.000 eurotik gorakoa bada.

Hala ere, kontratu txikien eta 5.000 eurotik beherako beste gastu batzuen kasuan (BEZik gabe), gaiaren arabera eskudun diren zuzendaritzetako titularrek gastuak erreserbatu, baimendu, prestatu eta xedatu ahalko dituzte, Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 13ko 48/2022 Foru Dekretuan ezarritako baldintzetan.

2. Bat etorriz Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorraren 77. artikuluaren 6. apartatuan jasotakoarekin, 50.000 euro izango da eragiketa bakoitzean "Justifikatu beharreko ordainketak" kontzeptupean eman ahal izango den gehieneko zenbatekoa.

**13. artikulua. Diruzaintzako aurrerakinak**

1. Foru Gobernu Kontseiluak, salbuespen gisa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru titularrak proposatuta, atzeratu ezinezko gastuei aurre egiteko diruzaintzako aurrerakinak emateko aukera izango du. Aurrerakin horiek ezingo dute ekitaldi bakoitzean gainditu Aurrekontua Gauzatzeko Foru Arauan onetsitako ordainketa kredituen ehuneko 0,2.

2. Diruzaintzako aurrerakinek aurrekontu babesa izango dute betiere, eta kasuan kasuko aurrerakina egiten den ekitaldiko aurrekontuan agertuko dira halakotzat.

3. Diruzaintzako aurrerakin horiek Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorraren II. tituluko III. kapituluko 2. atalean aurreikusitakoaren arabera finantzatuko dira.

**14. artikulua. Kontrol ekonomikoa**

Foru erakunde autonomoetan, zerga eta ekonomia

**TÍTULO IV. GESTIÓN Y CONTROL PRESUPUESTARIO**

**Artículo 12. Reserva, Autorización, Disposición y Ordenación del gasto de la Diputación Foral de Álava.**

1. A los efectos de lo dispuesto en el artículo 75 de la Norma Foral 3/2023, de 25 de enero, General Presupuestaria, en el ámbito de la Diputación Foral de Álava, se reservarán, autorizarán, dispondrán y ordenarán gastos por operaciones corrientes y de capital:

a) Por la persona titular de cada departamento foral, si la cuantía por operación no excede de 200.000 euros.

b) Por el Consejo de Gobierno Foral, a propuesta de las personas titulares de cada departamento foral cuando la cuantía sea superior a 200.000 euros.

No obstante, en los supuestos de contratos menores y otros gastos de importe inferior a 5.000 euros (IVA excluido), las personas titulares de las Direcciones competentes por razón de la materia podrán reservar, autorizar, disponer y ordenar gastos en los términos establecidos por el Decreto Foral del Consejo de Gobierno Foral 48/2022, de 13 de diciembre.

2. De acuerdo con lo previsto en el apartado 6 del artículo 77 de la Norma Foral 3/2023, de 25 de enero, General Presupuestaria se fija en 50.000 euros la cuantía máxima que podrá ser librada por operación y en concepto de «Pagos a justificar».

**Artículo 13. Anticipos de tesorería**

1. Con carácter excepcional, el Consejo de Gobierno Foral, a propuesta de la persona titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, podrá conceder anticipos de tesorería para atender gastos inaplazables, con el límite máximo en el ejercicio del 0,2 por cien de los créditos de pago aprobados por la presente Norma Foral de Ejecución Presupuestaria.

2. Los anticipos de tesorería tendrán en todo caso respaldo presupuestario y figurarán como tales en el presupuesto del ejercicio corriente en el cual se produzca el correspondiente anticipo.

3. La financiación de estos anticipos de tesorería se realizará conforme a lo previsto en la Sección 2ª del Capítulo III del Título II de la Norma Foral 3/2023, de 25 de enero, General Presupuestaria.

**Artículo 14. Control económico**

En los organismos autónomos forales y consorcios

kontrolak ordezkatuko ditu ekonomia, finantza eta kudeaketa kontrolak. Salbuespena Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arauak 74. artikuluko a), b) eta c) apartatuetan aipatzen dituen eragiketak gauzatzea da, kontratazioei eta dirulaguntzei dagozkien gastuen espedienteei dagokienez, baldin eta zenbatekoa 5.000 €-tik gorakoa bada.

forales el control económico-fiscal se sustituirá por el control económico financiero y de gestión, con la excepción de la ejecución de las operaciones señaladas en los apartados a), b) y c) del artículo 74 de la Norma Foral 3/2023, de 25 de enero, General Presupuestaria, de los expedientes de gasto correspondientes a contrataciones y subvenciones cuyo importe sea superior a 5.000 euros.

## V. TITULUA. LANGILEEN KUDEAKETA

### I. Kapitulua. Administrazioko foru sektore publikoa

**15. artikulua. Arabako Foru Aldundiaren, foru erakunde autonomoen eta foru partzuergoen aurrekontu plantillak**

1. Arabako Foru Aldundiaren eta foru erakunde autonomoen eta foru partzuergoen 2025eko ekitaldiko aurrekontuko plantillak Arabako Lurralde Historikoaren ekitaldi horretarako Aurrekontu Orokorretako «Langileen eranskinetan» agertzen direnak dira, eta mugatzaileak dira.

2. Arabako Foru Aldundiaren eta erakunde autonomoen aurrekontu-plantillari dagokionez, izaera mugatzailea funtzionarioen eta lan kontratuko langile finkoen plazen guztizko kopuru metatuari dagokio, Foru Sektore Publikoa osatzen duten erakunde guztientzat.

3. 2025eko ekitaldian, Lanpostuen Zerrenda aldatzeko espedienteak honako kasu hauetan besterik ez dira onetsiko: ez da gastu gehikuntzarik sortu beharko, edo sortuz gero, kasuan kasuko gehikuntza bestelako lanpostuetarako kredituak murriztuz konpentsatu beharko da eta aurretik Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren aldeko txostena beharko da.

